
 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

AURKIBIDEA

**1.- INTERES HISTORIKO- ARTISTIKO ETA NATURALISTIKOKO
ONDAREAREN KATALOGOA**

2.- MONUMENTUAK

3.- USTEZKO GUNE ARKEOLOGIKOAK

4.- ESTAZIO MEGALITIKOAK



5.- UDAL BABESEKO ONDAREA

6.- KATALOGOKO FITXAK

7.- PLANUAK:

7.1- USTEZKO ARKEOLOGI GUNEAK

7.2.- KULTURA ONDAREA

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

1.- INTERES HISTORIKO- ARTISTIKO ETA NATURALISTIKOKO ONDAREAREN KATALOGOA



Indarrean dagoen araudiarekin bat idatzia, Katalogoaren xedea Lizartzako udalerrian dauden ondasun artistiko, kultural, historiko ekologiko edo naturalistikoko, zientifiko, arkeologiko edo bestelakoak izendatzea eta babestea da, dagokion Babes araudia ezarriz.

Eraikin babestuak edo multzo monumentalak, parke natural edo paisaien katalogoak, babes berezi bat merezi dutenak, Arau Subsidiarioen zehaztapan osatze agiriak izango dira, Planeamenduaren Arautegiko 86. artikuluan zehazten den moduan.

Katalogoa, agiri material modura, zaintza bereziko ondarearen zerrenda bat da, hauen idatzizko deskribapena edo deskribapen grafikoa jasotzen dituenak.

Arau subsidiarioak behin betikoz onartzen direnean, berau osatzen duen katalogoan jasotzen den ondarea, Erregistro publikoan izen emango da, Planeamendu Arautegiaren 87. artikuluan aipatzen den moduan.

Arau Subsidiarioetan ezarritako arauekin eta aplikazio orokorreko jarrera legalarekin ados, bere balio berezi edo bereizgarriengatik babes, kontserbazio eta hobekuntza objektu izan behar dira

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

2.- MONUMENTUAK

Etxeaundi baserria

Lizartzako Etxeaundi baserriaren balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2006ko otsailaren 13ko Ebazpenaren bidez baserri hori Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hori 2006ko martxoaren 8ko 47.zenbakia duen EHAAn argitaratua izan zen.

Espedientea amaiturik, 2006ko apirilaren 10eko agindu bidez, Kultura sailburuak, Lizartzako Etxeaundi baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu zuen.



MUGAKETA

a) Mugaketaren eremua:

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurumaria hartzen ditu. Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: N-ra, 12 m-ko zerrenda bat, fatxadarekiko paraleloan; E-ra, 30 m-ra dagoen lerro bat, fatxadarekiko paraleloan; W-ra, 18 m-ra dagoen lerro bat, fatxadarekiko paraleloan; S-ra, Lizartzatik Oregara doan errepideko areka hurbilena, gertuenik 10 m-ra eta urrutienik 25 m-ra dagoena.

b) Mugaketaren justifikazioa:

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Etxeaundi baserriko ingurumariko ingurumen-balioak eta ikuseremua babestu behar direlako, nekazaritzagune bakartu batean baitago. Inguruaren mugaketak –beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko– zera dakar, baserriaren ondoko

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			



inguruak ere babestea, alegia, inguruko lurrak eta baserrirako sarbidea, horrela baserriaren bereizgarritasunak kontserbatzeko. Hori dela eta, mugaketak ez du soilik baserriaren eraikina hartzen, ezpada ere haren ingurumaria.

DESKRIBAPENA

Baserria Lizartzako herrigunetik gertuko mendi-hegal batean dago, nahiko toki aldapatsuan, Orexara doan errepidearen ondoan. Bolumen handiko baserria da, oinplano angeluzuzena, S-ra ematen duen fatxada nagusiarekiko perpendikularki dagoen gailurra duena. Bi solairu, ganbara handi bat eta soto bat ditu, eta bi isurkiko estalki zuzezkoa.

Fatxada nagusia harlangaitzezkoa da –zarpiatua eta kareztatua– eta zurezko bilbadurak ditu. Beheko solairuan burudun ate bat eta lau leiho txiki ditu. Lehen solairuan, zurezko markodun lau leiho erregular eta harlanduz inguraturiko beste bat. Leiho horien behealdean harrizko harburu lerro bat. Bilbadurak eta harri-hormak ganbara zati batean estaltzen duten arren, ganbara guztiz zabaltzen da teialtupeko espazioan. E-ko fatxadan ere zurezko bilbadurak daude lehenengo solairutik gora. Bertan, zurezko orridun bi ate daude, bai eta lau leiho-zulo irregular ezberdin. N-ko fatxadak zurezko bi orridun sarrera-ate bat dago, eta lau leiho, zeinetatik bi harlanduz inguratuak dauden. Ganbara ere irekita dago alderdi honetatik. W-ko fatxada besteak baino eskasagoa da, eta honek ere bi orriko sarrera-ate bat dauka, horietako bat zatitua, eta lau leiho-zulo. Itsatsitako eranskin batek zati batean estaltzen du. S-ko fatxada nagusia bezalaxe, gainerako fatxadak ere harlangaitzezkoak dira.

Eraikinaren zurezko egitura behe-solairuko sotoaren gainean altxatzen da, non zutoin-ardatz edo harlanduzko ostiko handi batzuek eusten dioten baserriaren

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		


pisuari. Sekzio handiko lau zutoin pieza bakarrekotan sostengatzen da egitura osoa; horiei S-ko eta E-ko pieza bakarreko zutoinak gehituz gero, guztira 18 zutoin ditugu. Eraikinaren erdialdean XVI. mendeko dolare gotikoaren egitura du, bi pilare gordetzen dituena. Zurezko estalkiak gapirio luze batzuk ditu, sekzio handiko petralez eutsita. Zutoin, habe, petral eta besoen multzo osoa enarabuztan eran eta aho-zirikako mihiztaduran lotuta dago.



W-ko fatxadari erantsitako teilape-eranskina ez da monumentutzat hartzen.

Monumentu babesa duten eraikin edo elementuetan eragina duten proiektuak, dagokion erakunde eskumendunari igorriko zaizkio aztertu ditzan.


7/1990 Legearen babespean dauden elementuen aurria deklaratu ahal izateko, Lege honen 36. artikuluan ezarritako prozedura jarraitu beharko da.

Etxeandia baserriaren babes eremua ondoren azaltzen den planuan zehazten dena da:





 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

Exeaundia baserriaren babes eremua:



Euskal kultura Ondarearen 7/1990 legeak ezartzen duenaren arabera, ondasun inbentariatuak zaindu eta balioztatu egin behar dira, horregatik, haietan egiten diren **esku hartzeak zaharberitze zientifiko edota kontserbatzaileak** izan behar dira. Esku hartze mota hauek hurrengo ataletan zehazten dira.



 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

3.- BALIZKO ARKEOLOGI GUNEAK

ERABAKIA, 1997ko abenduaren 19koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Lizartzako (Gipuzkoa) Balizko Arkeologia Guneen Izendapena egiten duena.

7/1990 Legearekin, Euskadiko Ondare Kulturalarenarekin eta 234/1996 Dekretuarekin, balizko arkeologia guneak finkatzeko araudia ezartzen duenarekin bat eginez, Lizartzako Balizko Arkeologia Gune izendatzen ditu ondoren zehazten diren eremuak:



2. Ospitalea (A)
3. Irabarren baserria (A)
4. Bengoetxe baserria (A)
5. Arostegi baserria (A)
6. Arrate baserria (A)
7. Lizarzaburu baserria (A) (Agiñenea)
8. Basaitzenea dorretxea (A)
9. Basaitzgoina baserria (A)
10. Joangi baserria (A)
11. Aztina baserria (A) – desagertua-
12. Magdalena basiliza (B)
13. Barrenetxea baserria (A)
14. Baratza baserria (A)

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

15. Rementari baserria (A)
16. Zuloaga baserria (A)
17. Zelain baserria (A)
18. Lezine baserria (hondatuta) (A)
19. Sastinzar baserria (hondatuta) (A)
20. Aitakonea baserria (hondatuta) (A)
21. Leizi Goina baserria (hondatuta) (A)
22. Etxeaundi baserria (A)
24. Goiko Errota (gaur egun etxebizitza) (D)
25. Ubereta Barrena baserria (A)
26. Ubereta Bitarte baserria (A)
27. Asura Goine baserria (A)
28. Asura baserria (A)
29. Goikoetxea Txikia baserria (A)
30. Agerre Goikoa baserria (A)
32. Lardi baserria (A)
33. Juanmiguel Haundi baserria (A)
34. Zumitza baserria (A)
35. Berasaenea baserria (A)
36. Bekoerrota errota (hondatuta) (D)

Babes esparruetan honako tipologia hauek bereziko dira:

A motakoak: eraikinaren hormez barruko esparrua.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

B motakoak: eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanpoen dauden puntuetatik hasita.



C motakoak: elementuak hartzen duen esparrua + 5 metro inguruan, kanpoen dauden puntuetatik hasita.

D motakoak: eraikinak eta berari atxikitako instalakuntzek hartzen duten esparrua.

E motakoak: planoan zehaztutako esparrua

7/1990 Legeak zehazten duen moduan, eremu hauetan egin nahi diren obren jabe edo sustatzaileak orubea edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra proiektuan izan dezakeen eraginari buruzko azterketa bat aurkeztu beharko du , 234/1996 Dekretuaren arabera.

Balizko Arkeologia Guneetan beharrezkoa izango da aurretikako azterketa edo proiektu arkeologikoa. Ondoren, eremu honen kategoria erabakiko da aurkitutakoaren arabera.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

4.- ESTAZIO MEGALITIKOAK


137/2003 DEKRETUA, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden eta I. Eranskinean zerrendatu diren Estazio Megalitikoak Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko eta babes-araudia ezartzeko dena.



Besteak beste ondorengo Estazio Megalitikoak deklaratzeko dituzten Kultura Ondasun, Monumentu Multzo izendapenaz:

Otsabio-Zarateko Estazio Megalitikoak

Udalerriak: Altzo, Gaztelu, Lizartza, Tolosa

Monumentu kopurua: 3, Añi eta Otsabioko trikuharriak eta Pagoanundiko tumulua. Monumentu hau Lizartzan aurkitzen ez den arren bere babes eremua Lizartzako eremuan sartzen da zati batetan




 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

Urkitako Estazio Megalitikoa

Udalerria: Lizartza



Monumentu kopurua: 1, Axurdarioko trikuharria. 70. hamarkadaren erdialdean aurkitua. Araxes et Orexako sakanetik sortzen den errekaen artean kokatzen da. Kareharrizko gune batean dago, 500 bat metrotako altueran, hau ez delarik oso handia modu horretako elementuentzat



Aldi berean, Babes Araubidea ezartzen du, udalerriko

planeamenduarentzat loteslea dena:

Kultur ondarearen katalogoan monumentu-multzo izendatutako ondasun modura jaso beharko dira.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

EREMU SAILKAPENA

Gipuzkoako Estazio Megalitikoen babes bermatuko duen erabilera- eta jarduera-araubide orokorra ezartzerakoan, hiru eremu bereiztu behar dira:



1. eremua. Monumentu megalitikoak kokatuta dauden azalerak. Berariaz zehaztuta ageri dira IV. eranskineko planoetan, dagozkien zenbakiekin eta idaztoharrekin.
2. eremua. Monumentu megalitiko hurbileneko inguruneak (babes bereziko azalaren edo 1. eremua deritzonaren inguruan). Gutxienez 5 metroko itzulingurua barnebidu beharko dute monumentuok, kanporen dauden ertzetatik hartuta. Dena dela, neurri hori hamar metrokoa izan ahalko da, monumentua artatzeko beharrezkoa baldin bada.
3. eremua. Monumentu megalitiko horiek osorik barnebiltzen dituzten alde zabalagoak dira. Mendi-kordalekin zuzeneko harremana duten heinean, Estazio Megalitikoa osatzen dute. Bada, eremu horren nondik norakoa mugatu ahal izateko, ikus IV. eranskinean 3. eremu legez zehazten dena.

Babes-maila.

Hiru dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Estazio Megalitikoei emandako babes-mailak, eta honela banatzen dira: 1. eremua edo babes bereziko azalera deritzona, 2. eremua edo babes ertaineko azalera deritzona, eta azkenik, 3. eremua edo oinarriko babeseko azalera deritzona, hirurak ere IV. eranskineko planoan zehazturikoak.

1. eremua. Babes bereziko azalerak.

Gune horretan, aztarnategia ikertzeko eta zabaltzeko jarduerak soilik egin ahal izango dira. Hortaz, bertako erabilerek zientzia- eta kultura-jarduerak izan

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

beharko dituzte helburu, hau da, erabilera horien bitartez, babestutako ondasunaren zabalkundea eta ezagutza egokia bultzatu beharko dira. Horregatik, egitarau zehatzak prestatuko dira elementu horiek artatzeko.

2. eremua. Babes ertaineko azalerak.

Eremu honetan ez da onartuko ondasunaren artapenari kalte eragiten dion inolako jarduerarik. Bai, ordea, aztarnategia dagokion naturgunean integratzera bideratutakoak, baldin eta integrazio horren bitartez, artatu beharreko kultur ondasunean funtsezko aldaketarik eragiten ez bada. Hori horrela, kulturarekin, turismoarekin eta aisiarekin zerikusirik duten erabilerak sustatuko dira.

3. eremua. Oinarriko babeseko azalerak.

Alde horietan, urteetan sendo errotutako erabilerari eta jarduerari eutsi ahal izango zaie, baina ñabardura batzuekin.

ERABILEREN ETA JARDUEREN ARAUBIDE OROKORRA



Irizpide orokorra.

1.– Soilik babes-araubide honetan jasotako erabilerak eta jarduerak onartuko dira. Beraz, eskainitako babesarekin bateraezinak izango dira ondorengo manuetan jasotzen ez diren erabilerak eta jarduerak.

2.– Hala ere, babes-araubide honetan agindutakoari lerratuz eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak horretarako berariaz emaniko baimenarekin bat, bestelako erabilerak eta jarduerak egin ahal izango dira, baldin eta babestutako lur-zatietako lurak iraultzen ez badira edota bertako arkeologia-hondakinei kalte egiten ez bazaie.

1. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1. Irizpide orokorra:

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Oro har, eremu honetan jarraitu beharreko irizpidea honakoa da: erabat murriztea babes-maila honetako ondasunen egoera aldaraz dezakeen edozein giza jarduera, hau da, agerian dauden ondasun higiezin hondakinak suntsi edo aldaraz dezakeen erabilera zein jarduera oro saihestea.

Honakoak dira ondasun higiezinetak hondakin: egungo tamaina edo artatze-egoera dela eta, batetik bestera erabil daitezkeen hondakinak, alegia, ondasun higikortzat har daitezkeenak baina, jatorrian, ondasun higiezina zenaren osagai baino ez direnak.



Adierazitako horrekin bat etorritik, eremu horietan onartutako erabilerek zientzia-eta kultura-izaerakoak izan beharko dute, bestelakorik ez. Beraz, proposatutako jarduerak sendotzea, artatzea eta/edo zaharberitzea izan beharko dute helburu, bai eta arkeologia-indusketa ere.

2. Onartutako erabilerak eta jarduerak: batetik, eraikitze asmorik ez duten zientzia-jarduerak, eta bestetik, aztarnategiaren zabalkundea helburu dutenak.

2.1. Zientzia-jarduerak eta hondakinak in situ mantentzeko lanak.

Aztarnategiko lurak iraultzeko jardueren artean, zientzia-ikerketara bideratutakoak baino ez dira onartuko eta, nolahi ere, lan horiek egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako egitasmoa aurretik dela.

Bada, eremu horretako zientzia-jarduerak (arkeologia-indusketak, azterketak, ikerlanak etab.) aztarnategia bere osotasunean barnebilduko duen egitarau arrazional baten barruan egon beharko dute, eta horrez gain, beronen ezagupena ere zabaldu beharko dute, gerora begirako balorazioa ahalbideratzeko. Hortaz, eremu horretan edozein jarduera burutuz gero, garbi izan beharko da arkeologi metodologiaren bidez aurkitutako arkeologia-ondasun higiezinak, dauden toki berean artatu beharko direla.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Aurkitutako hondakinak sendotzeko, in situ artatzeko eta zaharberritzeko, aldiz, egitasmo bat prestatuko da, horrela ziurtatuko baita hondakinon degradazio-prozesuen aurkako mantenimendua eta artapena.

2.2.– Kultur jarduerak eta aztarnategiaren zabalkundea.



Aztarnategiko hondakinak artatzearekin bateragarriak diren kultur jarduerak garatu eta sustatu ahal izango dira, hain zuzen ere, tokia nahiz bertako ondarea ezagutzera bideratutakoak. Beraz, babestutako eremu hori kultur ibilbideetan sartu ahal izango da eta, horretarako, zenbait egokitzapen egin beharko dira: batetik, bisitak egiteko aukerari dagokionez, sendotze-egitasmo txikiekin eta azalpen egoki bezain ulergarriekin; bestetik, eremu horretako gunek jakin batzuk atontzeari dagokionez, etab.

Dena den, 1. eremuan kultur jarduera horietako edozein gauzatu nahi izanez gero, nahitaezkoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak aldeztutako aurretiko baimena ematea, hau da, arkeologia-lanbidean diharduen aditu baten kontrol, zuzendaritza eta gainbegirada zorrotza tartean dela, kultur jarduera horiek aztarnategia artatzearekin bateragarriak direla ziurtatuko duena.

3. Onartutako jarduerak.

Aurretik adierazi bezala, 1. eremuan edo babes bereziko deritzon eremuetan, honako hauek dira onartzen diren jarduera bakarrak: arkeologia-indusketa, sendotzea eta/edo zaharberritzea. Jarduera horiek, berriz, honakoari jarraituz egin beharko dira:

a) Arkeologia-indusketa. Arkeologia-indusketa deritzo, Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen 45.2 artikuluan jasotakoari jarraituz, sedimentuen estratigrafiari atxikiz arkeologia- eta paleontologia-hondakinak ikertzeko, dokumentatzeko eta eratzeko jardueri. Nahitaezkoa da aztarnategiko hondakinak zaharberritzeko egitamuei ekin aurretik egitea, horrela, horren

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			



historia ezagutu baitaiteke eta, bide batez, aztarnategia baloratzeko orduan nola jokatu jakin.

b) Zaharberritzea. Nekez mintza daiteke zaharberritzeaz baldin eta, aurretik, zaharberritu nahi den horri buruzko ikerlan zehatza egiten ez bada arkeologia metodologikoaren bitartez. Bada, ikerlan horren bitartez, monumentuok berreraikitze eta baloratzeko oinarriak eta irizpideak zehaztu beharko dira, eraikitze-historiarekin, errituekin eta okupazioarekin bat etorritik (ikerlanaren eta azterketaren emaitza), monumentuoi arrotz zaizkien irizpideak ezarri gabe, hain zuzen.

Interes handikoak diren edota artapen-maila ona duten aztarnategi-zatietatik hasiko dira zaharberritze-lanak, arkeologia-azterketak amaitu eta berehala. Beraz:

- Zaharberritze-prozesu oro aztarnategia baloratzeko egitarau oso baten barruan egon beharko du. Horretarako, zuzendaritza-talde horretan gaian aditu diren arkeologia-profesionalak izan beharko dira, azken batean erabakiorrak izango baitira lanak arautuko dituzten irizpideak finkatzerakoan.
- Erabilitako teknikak eta materialak aztarnategian aplikatuko den edozein tratamendurekin itzulgarriak izan beharko dira, tratamenduaren aztarnarik gera ez dadin.
- Aztarnategia interpretatzeko beharrezkoak iritziz gero, aztarnategiko zati suntsituak berreraiki ahal izango dira eta berreraiki beharko ere, baina berreraikitakoa aztarnategiaren ikuspegiari gailentzea saihestuz.

Nolanahi ere, berreraikuntzak jatorrizkoaren egitura megalitikoari jarraitu beharko dio estu-estuan, arkeologia-azterketak ezarritako ildoekin bat etorritik.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

Horretarako, aurrena, jatorrizko materialak erabiliko dira, eta galduz gero, hurrena, kolorean, itxuran, ehunduran etab. antzekoak direnak. Hala eta guztiz ere, jarraitu beharreko arau nagusia jatorrizko egituraren eta berreraikitakoaren artean zeharo bereiztearena izango da, adibidez, bi zatiak bereiztuko dituen marran materiala ezberdin kokatuz.

- Era berean, egitura horietatik ezabatu ahalko dira, eta beharko ere, egitura horiek eraiki eta gerora jarritako elementuak, ez direlako jatorrizko erabilpenarekin lotzen, baizik eta denboran geroxeagoko erabilerei dagozkienekin. Hortaz, soilik mantenduko dira, kokatuta dauden ingurunekeo usadioak ezagutzera emateko aztarnategi-zatitzat jotzen badira. Hala dagokionean, behar den moduan arrazoitu beharko da.



c) Sendotzea eta artatzea. Arkeologia-aztarnategietako egiturak, materialak, etab. (tumuluak, ganbara, materialak etab.) artatzeko erabilerak, tratamenduak eta jarduerak dira. Elementu horiek indartu egiten dituzte, bai eta beren sendotasuna bermatu ere, narriadura saihestuz eta ikusgarriagoak eginez. Horrela, ulerterrazago egiten dituzte eta horien zabalkundea hedatu.

Era berean, monumentu megalitiko horietako bakoitzean egin beharreko ekintzak egituratzen dituzten sendotze- eta artatze-egitarauak sustatu beharko dira, alegia, aztarnategia artatzea bermatuko duten egitarauak, hala arkeologia-indusketa prozesua gertatu aurretik, gertatu bitartean nola gertatu ostean.

Egitarau horiek gaien adituak direnek gauzatu beharko dituzte, hori bai, arkeologia-profesionalen aholkuak lagun dituztela. Halaber, prozesu horiek itzulgarriak izan beharko dute beti.

2. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1. Irizpide orokorra.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

2. eremuari dagokionez, bertako erabilerak eta jarduerak murriztu egingo dira. Beraz, ezin izango da zuhaitzik landatu. Bai, ordea, larre eta zelaiak. Eremu horretako erabilerei dagokienez, kultur alorrekoak izango dira ohikoenak.

2. Onartutako erabilerak eta jarduerak: eraikitzeako asmorik gabekoak.

2.1. Kultur jarduerak eta aztarnategiaren zabalkundea.

1. eremuan onartutako berberak (6. artikulua, 2.2 idatz-zatia) eta aztarnategia modu egokian seinalizatzeko behar direnak, baina aurkitutako hondakinak okupatzen duten azaleraren mugak aintzat hartuz eta turismo-gidetan jasotakoa aintzat hartuz, horrela, ezagutzera ematen baitira. Horrek, monumentuoi zor zaien begirunea eta mantentzea bermatuko du, maiz.



2.2. Baso-erabilerak eta baso-jarduerak.

Gaur egun, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Estazio Megalitikoen 2. eremuko alde handi batean zura ustiatzeko jarduerak nagusi direnez, orain arteko baso-ustiategiekin jarraitzea onartzen da, baina beren-beregi debekatzen da baso-azalerak gehiago handitzea edota eremu horretan birlandatzea.

Landareak ebakitzeko eta erauzteko lanak honako baldintza hauekin bat etorritz egin beharko dira:

a) Sustraia erauzi gabe eginiko ebaketak bakarrik onartuko dira, hau da, motzondoak jatorrizko eran uzten dituztenak.

b) Erauzketa-lanak egiteko, makineri astuna eta poleak erabiliko dira. Lanok eskuz ere egin ahal izango dira, baldin eta eremu bakoitzean piezak alde batetik bestera erabiltzeak aztarnategien egiturari kalte egiten badie. Baldintza horiek guztiak arkeologia-lanbidean diharduen aditu batek aurrez eginiko txosten batean adierazi beharko dira. Era berean, erauzketa-lanak egin ahala, aditu horrek bertatik bertara gainbegiratu beharko ditu erauzketa-lanak.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

c) Edozelan ere, jarduera horiek gauzatu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak dagokion baimena eman beharko du.

Era berean, hala erakundeetatik eta toki erakundeetatik, nola esparru zabalagoko erakundeetatik, eremu horiek garbi egon daitezela sustatu beharko da, esaterako, monumentu megalitikoetara heltzea oztopatzen duen landaretzarik eta sasirik ez egotea, beti egon dadin bidezidor ireki bat monumentua artatzeko.

2.3.– Abeltzaintzarako erabilerak eta jarduerak.

Babestutako eremua zelai- eta larre-eginkizunetarako erabili ahal izango da, baldin eta jarduera horien bitartez lurra iraultzen ez bada edota lurzoruko arkeologia-hondakinetan aldaketarik eragiten ez bada.



3. Onartutako erabilerak eta jarduerak: eraikitzeak.

Eraikitzeak diren erabilerak eta jarduerak onartuko dira soilik, hala eremua babesteko direnak, nola kultura ikertzeko eta/edo zabaltzeko nahitaezko zat jotzen diren eraikuntzak eta instalazioak. Horiek guztiak soilik onartuko dira, baldin eta arkeologo teknikari eskudun batek aztarnategia ikertzeko, artatzeko eta baloratzeko izenpetutako egitasmo batek beharrezkoa eta egokia baderitzo.

3. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1. Irizpide orokorra.

Eremu horretan aplikatuko den irizpide orokorra urteetan gauzaturiko erabilerei eta jarduerari eustea da, jarraian zehaztuko diren ñabardura eta betebeharrak batzuk ezarriz.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		



2. Onartutako erabilerak eta jarduerak: eraikitzeak eta eraikitzeo asmorik ez dutenak.

Ohiturari jarraituz alde horretan gauzaturiko erabilera eta jarduera guztiei eutsiko zaie, edota aurrerantzean litezkeenei, jarraian datozen ñabardurekin:

a) Eremu honetan proposatutako edozein proiektu egiteko baimena eman eta hori egiten hasi aurretik, prospekzio-programa bat egin beharko da proiektuak ukitutako eremuan, gaur egun oraindik aurkitu ez diren arkeologia-aztarnategi berriak aurkitzeko helburuarekin. Kontuan izan behar da, probabilitate handia dagoela toki horretan egoteko Estazio Megalitiko horiek, bertan lurperatuak izateko asmoarekin, eratu zituztenen kokalekua edo herri-gunea; gaur arte gutxi ezagutu izan direnak. Horien kokalekua zehaztea zaila da, gainaldean aztarna gutxi daudelako. Bestalde, erraz hautsi daitezkeen hondakinak izanik, ezinezkoa da obrak kontrolatzeko fasean horiek antzematea.

Aztarnategi berririk aurkitzen bada, berriz, proposatutako proiektuak horiek ez dituela ukituko bermatu beharko da. Horretarako, proposatutako proiektuaren ezaugarrien eta aurkitutako aztarnategiaren garrantziaren arabera, kasuan-kasuan egokien jotako neurri zuzentzaileak hartuko dira. Modu horretara, posible izango da aztarnategia babestea ahalbideratzen duten aldaketak proiektuan sartzea planteatzea, edo proiektuaren hedaduraren arabera indusketari hasiera ematea.

b) Artikulu horren idatz-zatian adierazitakoa betetakoan, eremu horietan onartutako edozein jarduera Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari jakinarazi beharko zaio, jarduerari ekin baino hamabost lehenago. Kultura Sailak egoki baderitzo, berriz, jarduera horren arkeologia-kontrola hartu ahal izango du bere gain, monumentu-multzo horretako kultur ondasunak ukituta geratuko ez direla bermatuz.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			



c) Eremu horretan inolako instalaziorik edo eraikuntzarik egin nahi bada eta Monumentu Multzoaren balio azpimarratzeko ez bada eta lurraren gaina gainditzen badu, hurrengo honi jarraitu beharko zaio:

c.1.– 1, 2, 3, 4, 6, 7, 10, 12, 13, 14, 16, 19, 20, 21, 22, 24, 25, 26 eta 27.zk.a duten Estazio Megalitikoen 3. bezala adierazi diren guneeetan diren lurrak ezartzen duen hilada beran lau edo gehiago monumentu megalitiko badira, honako formula hau jarraitu beharko da:

“Monumentu megalitiko horien kanpo aldeko edozein ertzetik edozein instalaziora edo eraikuntzara egon beharko duen aldea, egin nahi den eraikuntzaren edo instalazioaren garaiera bider hogeia izango da (Adibidea: megalito batetik 20 metrora, gehienez metro bateko garaiera duten egiturak eraiki ahal izango dira)”.

Formula gauzatzekoan den gehienezko emaitzak ez du inoiz 3. guneko mugak gaindituko. Emaitza gunearen mugaren gainetik bada, orduan 3. guneko muga emaitza aplikagarritzat joko da.

c.2.– Estazio Megalitikoen 3. bezala adierazi diren guneeetan c.1. atalean diren ezaugarriak betetzen ez badira, beti monumentu megalitikoa eta jarri nahi den instalazioaren artean 75 metrotako gutxienezko aldea gorde beharko da, egitura megalitikoaren kanpoaldeko mugatik neurtuta.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

5.- UDAL BABESEKO ONDAREA

Katalogoa osatzerakoan, Eusko Jaularitzako kultura sailak sustatu duen Ondare Kultureko arloko planaren aurrerapena aintzat hartu da eta Euskadiko ondare Kultureko 7/1990 Legearen zehaztapenak jarraitu dira.

Katalogoan sartu diren eraikin eta elementuak bi taldetan banatu dira:



5.1.- UDAL ONDAREAREN SAILKAPENA

5.1.1.-Bereziki babestu beharreko udal ondarea

Talde honetan kokatzen dira, Udalaz gaindiko babesa dutenak(monumentuak eta estazio megalitikoak) eta Interes arkitektoniko, historiko eta tipologikoa duten elementu garrantzitsuenak.

Talde honetako eraikinetan, A-motako eskuhartzeak onartuko dira orokorrean.

- Asurdarioko trikuharria
- Etxeaundia baserria
- Santa katalina Eliza
- Udaletxeko eraikina
- Zuloaga baserria
- Zumitzaga baserria
- Agiñenea baserria
- Asura baserria
- Asura goiene baserria



 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

- Iraolabekoa baserria
- Basaitzgoiene baserria
- Lezinea baserria
- Agirrebarrena baserria
- Lardi baserria
- Ubereta barrena baserria
- Iribarren baserria
- Arostegi baserria
- Arrate baserria
- Sagrarioko amaren Ermita
- Magdalenako ermita
- Uberetako zubia



5.1.2.- Babes orokorreko udal ondarea.

Kataloan jaso diren gainontzeko eraikinak ere balio arkitektoniko eta historikoa dutelako jaso beharrekoak iruditu zaizkigu. Talde hauetan jasotzen diren eraikin eta elementuetan baimentzen diren eskuhartzeak malguagoak dira.

- Apeztegizar(berritua)
- Bengoetxea baserria
- Txominenea edo Soroanea
- Arantzabenea
- Larrenea

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

- Ugarte
- Ostatu berri
- Dorretxea(berritua)
- Alondegia
- Kale Nagusia 9,11,13,15,21,23 eta 26
- Basaitzenea baserria
- Joangi baserria
- Zelarain baserria
- Agerre goikoa baserria
- Goikoetxeaundia baserria
- Baratza baserria(berritua)
- Ubereta bitarte baserria
- Juanmiguel Haundi baserria
- Asuraetxeberri baserria
- Berasaenea(berritua)
- Iruntzi(berritua)
- Sagastiñeberri baserria
- Arizpea baserria
- Goikoerrota
- Orexako errota
- Opoteko errota
- Bekoerrota

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

- Mikeleten etxe zaharra
- Arostegiko artetxea
- Berasaneako biltegia
- Aitakorena(aurrian)
- Lezigoiena(aurrian)
- Iolagoikoa(aurrian)
- Larraeneko zubia
- Iruntzizubi
- Karelabeak
- Gurutzbideko kalbarioko gurutzea



Udalaz gaindiko babes, udal babesari gainjarriko zaio.

5.1.3.- Babestu diren elementu motak

Monumentu multzoak, Monumentuak eta Balizko arkeologi guneak:

Eusko Jaularitzak izendatutakoak jaso dira. Udalaz gaindiko babes arauak aplikatuko zaizkio(2 eta 3. atalean jasotzen direnak).

Monumentu multzo izendapena. Izendapen hau, Asurdarioko trikuharria, Añi eta Otsabioko trikuharriak eta Pagoanundiko tumuluari dagokio (azken hiru hauek Lizartzako udalerrian aurkitzen ez diren arren, hauen babes eremuaren parte bat Lizartzako lurretan aurkitzen delako jasotzen dira).

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

Monumentu izendapena: 2006ko apirilaren 10eko agindu bidez, Kultura sailburuak, Lizartzako Etxeaundi baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu zuen.

Balizko arkeologi gune izendapena. Babes mota bat ez den arren, izendapen hau duten eraikinetan eskuhartzerik egin aurretik(batez ere sestratik behera eragina duenean), azterlan bat burutu beharko da. Azterlan honen emaitzen arabera, eskumendun erakundeak dagokion kalifikazioa ezarriko du, edo hala badagokio, babesik gabe utziko du eraikina.



Baserriak:

Lizartzako ondare kultural, historiko eta arkitektoniko bat azpimarratu behar bada, bertako BASERRIAK azpimarratuko genituzke. Guztira, 50 baserri inguru dira, horietako asko katalogo honetan jaso direlarik. Garai desberdinetako eta arkitektura mota desberdinetako adibide onak aurki ditzakegu udalerrian.

Orokorrean, udalerriko baserri tradizional guztiak Udal Babeseko ondasunak dira. Ondasun hauetan ezarri beharreko erregimenak aldaezinak bezala definituko ditu eraikinen bolumen eta forma sinpleak, estalkien maldak eta fatxadako bilbadura eta aparailuak.

Mugatu edo debekatu egingo dira, ondasunaren kategoriaren arabera, terraza edo itsatsitako bolumen berriak. Eraikuntza egintzetan kanpoko akabera materialak lehengo berak izango dira: zarpiatua, harria, adreilu trinkoa, karea, pintura, etab.

Egiten diren birgaikuntza eta berrikuntza jarduerak, eraikinean dauden balio gabeko eranskin eta elementu desitxuratzailen desagertzea ekarriko dute.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Zerrendan agertzen diren ondasunen mugatik 30 m-ko tartean ezingo da eraikuntza berririk baimendu.(Lurzoru hiritarrezinean aplikagarri izango da soilik).

Katalogoan herriko hainbat baserri jaso diren arren, beharrezkoa ikusten da azterketa zehatzago bat egitea, batez ere eraikinen barruko egitura aztertzeko eta bere jatorri eta historia jasotzeko.

Udalak, ahal duen mailan, eraikinetan eskuhartzeren bat baimendu behar duenean, goian aipatutako informazioa eskuratzen saiatuko da. Jasotako datu hauek Katalogoari gehituko zaizkio.

Errotak:



Gaur egun nahiko desitsuratuta dauden arren, errota erabilerako zenbait elementu mantentzen dituzte . Herriarentzako duten balio historikoagatik jaso dira katalogoan. Bekoerrota eta Goikoerrotako kasuan, berritze lanak burutu beharko lirateke eta galdutako hainbat elementu berreskuratzen saiatu.

Hauetako errotaren bat eskuratu eta eraberritzeko aukera aztertzea gomendatzen da.

Ez da baimenduko hauen eraisketa ez eta errotako jarduerari lotutako elementuen desagertzea ere.

Eraikin Ereljiosoak:

Herriko eliza eta ermitak babestu dira duten interes arkitektoniko historiko eta kulturalagatik. Santa Katalina Eliza eta Sagrarioko ermita berriki eraberrituta izan diren arren, Magdalenako ermitan eraberritze lanak burutu beharko lirateke.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Zubiak:

Lizartzako Udalerrian hiru zubi historiko daude: Iruntzizubi(denetan zaharrena), Uberetako zubia eta Larraeneko zubia. Hirurak garai desberdinekoak eta egitura mota desberdinekoak dira.

- Iruntzizubi: bao bakarreko zubia da, harlangaitzez egina eta arku zorrotza duena.
- Uberetako zubia: hiru baotako zubia da, puntu erdiko arkuz osatua.
- Larraeneko zubia: bao bikoitzeko zubia da beheratutako bi arkuz eraikia eta goikaldean lauza zuzena duena.



Udalaren ardura izango da Zubi hauek egoera onean mantentzea eta desitsuratzen dituzten elementuen ordezkapena bultzatzea.

Bereziki Iruntzizubi eta Larraeneko zubiek dute berreskuratzeko beharra.

Karelabeak:

Historian zehar herriaren garapenerako elementu garrantzitsu izan dira karelabeak. Auzolanean erabiltzen ziren eta etxalde bakoitzak bere karelabea izaten zuen. Alpdiko hamarkadatan erabilpenik izan ez duten arren, garrantzitsua iruditzen zaigu zehaztaperen eta berreskuratze lan bat burutzea.

Beren mantenurako beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira. Ez da hauen eraisketa baimenduko.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Bestelako eraikinak:

Goian aipatutako taldeetan sartzen ez diren beste hainbat eraikin, eskultura etab ere jaso dira. Beren singulartasun arkitektonikoa kasu batzuetan eta beste batzuetan duten balio historikoagatik.

5.2.- Ondareari aplikagarri zaion erregulazioaren irizpide nagusiak:

5.2.1.- Udal Planeamendua:

Udal Planeamenduak katalogoan jasotako eraikinak kontsolidatuko ditu.

5.2.2.- Ondare mota:

Katalogoan ondarearen izaera zehazten da. Kasu batzuetan sailkapen bat baino gehiago izango ditu. Ondorengo sailkapenaren arabera izendatuko dira.

Arkeologikoa



Arkitektonikoa

Historikoa

Eskultorikoa

5.2.3.- Babes maila:

Udal babesaz gain Ondareak duen garrantziagatik, kasu batzuetan Inbentariagarria dela ere esaten da. Inbentariatzea udal eskumena ez den arren, Ondarearen garrantzia azpimarratzea interesgarria iruditu zaigu.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

5.2.4.- Onartutako Eskuhartzea:

5.2.4.1.-A motako eskuhartzeak:

Talde honetako Esku-hartzeek jatorrizko eraikinari zorrotz eusten diote.

- a) Zaharberritze zientifikoa.
- b) Zaharberritze kontserbatzailea.
- c) Zaintzea eta apaintzea.
- d) Sendotzea.



Zaharberritze zientifikoa

1. Arkitekturaren ikuspegitik berariazko balioak dituela-eta hiri-ehunean berebiziko garrantzia duen eraikin edo instalazio batean eta, hala badagokio, eraiki gabeko lurretan egindako eraikuntzako esku-hartzea da zaharberritze zientifikoa, bere nolakotasunak zaintzera eta balioa ematera bideratutakoa, bere barnean aipatutako balio horiei dagokienez egoki izango den edo diren erabilerak ahalbidetuko dituena.

2. Eraikuntzaren gai tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatuz egindako zaharberritze zientifikoak honako obrak har ditzake barne:

- a) Arkitektura-itxura zaharberritzea eta aldatutako zatiak jatorrizko egoerara lehengoratzea honako hauek eginez:

Barruko edo kanpoko fatxadak zaharberritzea.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Barruko espazioak zaharberritzea.

Eraitsi edo erraustutako eraikinaren zati baten edo batzuen berreraikitze filologikoa.

Jatorrizko espazioen banaketa eta antolaketa zaintzea edo lehengoratzea.

Eraikuntza-unitatearen zati diren eraikitako lurren (patio, klaustro, plaza, baratze, lorategi eta abarren) jatorrizko egoera zaintzea edo lehengoratzea.

b) Berreskuratu ezin diren zatiak ordezkatzuz sendotzea, ondoren adierazitako egituraren inguruko elementuen kokapena edo kotak aldatu gabe:

Kanpoko eta barruko sostengu-hormak.

Forjatuak eta gangak.



Eskailerak.

Estalkia, estaltzeko jatorrizko materiala lehengoratzea.

c) Eranskin itsusgarriak eta orain gutxiko interesik gabeko obra-motak edo eraikuntzaren, eraikuntza-unitatearen edo bere inguruaren jatorrizko arkitektura-ezaugarriekin bat ez datozenak kentzea.

d) Funtsezko instalazio teknologikoak eta higienezaren eta osasunaren ingurukoak jartzea, aurretiaz adierazitakoa errespetatzen den heinean.

Zaharberritze kontserbatzailea

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

1. Arkitekturaren ikuspegitik berariazko baliorik izan ez arren eraikitako ondarearen alderdi interesgarria den eraikin edo instalazio batean eta, hala badagokio, eraiki gabeko lurretan egindako eraikuntzako esku-hartzea da zaharberritze kontserbatzailea. Alderdi interesgarri izan ohi dira tipologiaren ikuspuntutik garrantzizko elementua delako, barruko banaketa, banaketa bertikaleko elementuen antolaketa, lur-zatiko kokapena eta antolaketa edo beste edozein ezaugarri morfologikori dagokienez.

2. Zaharberritze kontserbatzailea eraikuntza zaintzera eta bere funtzionalitatea ziurtatzera bideratutakoa izan ohi da. Horretarako betiere eraikuntzaren elementu tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatuko dituzten obrak egingo dira eta horien barnean ez da baimenduko horiekin bat ez datorren erabilerarik. Esku-hartze horrek eraikuntza osatzen duten elementuak sendotzea, zaharberritzea eta berriztatzea, baimendutako erabilerak egiteko beharrezko elementu berriak gehitzea eta eranskin itsusgarriak kentzea hartuko ditu barne.



3. Zaharberritze kontserbatzaileak honako kategorietan sailka ditzakegu:

1) A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

2) B kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

3) C kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

4.– Honako eraikin hauei aplikatuko zaie A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea: beren kontserbazio-egoera dela eta, eraikinaren alderdi tipologiko, formal eta egiturazkoei balioa ematea ahalbidetzen duten eta erabat berreskuratzeko aukera eskaintzen duten eraikuntzei. Honako obra hauek barne har ditzake:

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

a) Alderdi arkitektonikoari balioa ematea, hau da, jatorrizko balioak berreskuratzea, ondoren adierazitakoak eginez:

Kanpoko eta barruko fatxadak zaharberritzea. Azken horietako zati batzuk aldatzea ahalbidetuko da, betiere osaketaren batasuna hausten ez den eta balio estilistiko bereziko elementuak errespetatzen diren bitartean.

Barneko espazioak zaharberritzea, arkitektura edo kulturaren inguruko garrantzi nabarmena duten elementuak direnean.

b) Aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoko b), c) eta d) puntuetan zehazten direnak.



5.– Honako eraikin hauei aplikatuko zaie B kategoriako zaharberritze kontserbatzailea: kontserbazio-egoera txarra edo erdipurdikoa duten eta, balio berezia duten elementu arkitektonikorik izan ez arren, ondare eraikiaren zati interesgarritzat har daitezkeen eraikuntzei.

Honako obra hauek har ditzake barne:

a) Alderdi arkitektonikoari balioa ematea, honako hauek eginez:

Kanpoko eta barruko fatxadak zaharberritzea. Azken horietan baoak irekitzea ahalbidetuko da, betiere osaketaren batasuna hausten ez den bitartean.

Barneko espazioak zaharberritzea. Horietan bertako forjatuen kotak aldatzea ahalbidetuko da, betiere leihoen kotei eta erlaitzen lerroei bere horretan eusten zaien bitartean.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

b) Egoera txarrean dauden egitura-elementuak sendotzea eta, beharrezkoa denean, ordezkatzeta. Eraikuntzaren zati handi batean forjatuen kotak aldatzeko aukera izango da.

c) Aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoko c) eta d) puntuetan zehazten direnak.

6. Honako eraikin hauei aplikatuko zaie C kategoriako zaharberritze kontserbatzailea: zaharberritze zientifikoan barne hartu ezin diren erdi erraustutako eraikuntzei, baina jatorrizko eraikuntzako tipoa berrezartzeko aukera eskaintzen dutenei, aurkitutako agiri fidagarriei esker badugulako jatorrizko eraikuntzako tiporekin antolamenduaren berri.

Ondorio horietarako, honako obra hauek egin ahal izango dira, arkitekturaren alderdiari balioa emateko helburuarekin:



Elementu bertikalak eta horizontalak —atariak, eskailera-blokeak, arkupeak, galeriak eta abar— jatorrizko egoerara lehengoratzea.

Eraikuntza-unitatearen forma, dimentsioak eta eraikuntzaren eta eraikuntza-unitatearen zati irekien —patio, klaustro eta abarren— arteko erlazioa jatorrizko egoerara lehengoratzea.

Eraikuntzako tipoa osatzen duten gainerako elementu guztiak lehengoratzea.

Zaintzea eta apaintzea

1.– Zaintzea eta apaintzea eraikuntzako esku-hartzeetako bat da, honakoak lortzea helburu duena: dauden eraikuntzetako akabera-elementuak konpontzea, berriztatzea edo ordezkatzeta, eraikuntza horietako gutxieneko bizigarritasun-baldintzei (gutxieneko higiene-zerbitzuen, bainu, komun eta sukaldeko gasen

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A		
	2007KO OTSAILA		

aireztapenaren eta bizitzeko egoki diren gainerako gelen ingurukoei) eustea edo horiek eskaintzea, uraren hornidura, elektrizitate, berogailu eta saneamenduari dagokienez indarrean dagoen legeriaren arabeko instalazio egokiak jartzea, geletako argitasuna eta aireztapena hobetzea, beharrezko izanez gero fatxada-baoak konponduz edo berriak eginez, eta eraikinak narriatzea saihesteko gutxieneko baldintzak eta 317/ 2002 Dekretuaren II. eta III. eranskinetan zehazten diren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak izateko obra txikiak.

2.– Zaintzeko eta apaintzeko esku-hartze batean barne hartutako obrek ez dute eraginik izango eraikuntzaren egonkortasunean, ez zimenduei, ez sostengu-egiturei, ez estalkiaren egiturari dagokienez. Alabaina, nolabaiteko eragina izan dezake azalera erabilgarriaren barne-banaketan, baina eraikinean funtsezko instalazio teknologikoak eta higienaren eta osasunaren ingurukoak jartzeko eta aurrez adierazitako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzeko helburuarekin bakarrik.



3.– Honakoak izan daitezke zaintzeko eta apaintzeko esku-hartze batean barne hartutako obrak:

a) Fatxaden itxura aldatzen duten obra txikiak, baoetan eragina dutenak edo bao berriak irekitzea eragiten dutenak, horiek lehendik dagoen azalera erabilgarriaren banaketa eta fatxaden osaera orokorra aldatzen ez dituztenean.

b) Estalkia konpontzeko obrak. Hala badagokio, petralak eta bestelako egitura-elementuak ere aldatu ahal izango dira, baina betiere horien formari eutsiz.

c) Eraikinaren edozein elementu inpermeabilizatzeko obrak.

d) Fatxada, balkoietako hegalkin, begiratoki, erlantz eta sarbideetako ateetako egurra ordezkatzeko obrak. Horrelakoetan lehendik zeuden material eta

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

diseinuen antzekoak erabili beharko dira, lehengoak hobetzeko horiek aldatzea aholkatzen denean izan ezik.

e) Narriatuta dagoen beste akabera-elementuren bat konpontzea helburu duten obrak, horiek egitura- edo sostengu-funtzioren bat dutenean izan ezik.

f) Eraikinaren banaketan eragiten edo hori aldatzen ez duten barneko obrak, besteak beste, luzitzea, pintatzea, zolatzeak egitea eta konpontzea, barneko arotzeria-lanak, iturgintza, berogailu eta fumisteriako konponketak, sukaldeak eta aparatu sanitarioak aldatzea eta funtsezko instalazio teknologikoak eta higienearen eta osasunaren ingurukoak jartzea.



g) Aurrekoen garrantzi bera edo antzekoa duen beste edozein obra.

4.- Zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzean barne hartutako obrek eranskin itsusgarriak kentzea eragin dezakete eta egokiak ez diren kanpoko estalduraren tratamenduetan ere eragin dezakete, bai estaldura-materialari, bai, hala badagokio, pintura, kolore eta ehundurari dagokienez.

Sendotzea

1.- Sendotzea eraikuntzako esku-hartze bat da, honako helburuetara bideratutakoa: zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen kasuan adierazitako helburuetara, batetik, eta eraikuntzaren egonkortasuna hobetzera, bestetik. Hori egitura-elementuak berriztatuz eta ordezkatzuz egingo da.

2.- Sendotzeko esku-hartze batean barne hartutako obrak honakoak izango dira, zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen kasuan adierazitakoez gain: egoera txarrean dauden egitura-elementuak ordezkatzeko, nahiz eta berriak beste material batekoak izan, eta egonkortasuna eta segurtasuna areagotzea

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

ondorio izango duten egituraren eta zimentazioaren osaketaren inguruko gainerako lanak.

3.– Egitura-elementuak ordezkatzeko obrek forjatuen kotak aldatu ahal izango dituzte pixka bat, erlaitzaren eta leihoen kotei bere horretan eutsiz.

4.– Egitura sendotzeko obrak egin ondoren, eraikinaren gainerako elementuak berregin beharko dira jatorrian zituzten formaren eta banaketaren inguruko ezaugarrien arabera, aipatutako obra horiek berriz egiteko erraustea eskatzen duten kasuetan.



5.2.4.2.- B motako eskuhartzeak

a) Berreraikitzea.

b) Berriztatzea.

Multzo honetako eraikuntzako esku-hartzeak egiteko baimena duten eraikuntzetan, handitzeko esku-hartzea baimen daiteke, batez ere horietan funtsezko instalazio teknologikoak eta higiearen eta osasunaren ingurukoak jartzeko.

Funtsezko instalazio teknologiko eta higiearen eta osasunaren inguruko instalaziotzat joko dira birgaitutako eraikuntza batek gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzeko beharrezko direnak. Baldintza horien artean aipa ditzakegu energia elektrikoaren instalazioak, uraren banaketa, telefonoa, berogailua, zerbitzu higienikoak eta artifizialki argitutako eta aireztatutako sukaldeak, oro har horma-instalazio izan behar dutenak, eraikuntzaren barrukoak nahiz eraikuntzaren barnera iristen diren kanpoko hartuneetakoak.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Berreraikitzea

1.– Berreraikitzea eraikuntzako esku-hartze bat da, honakoa helburu duena: aurrez erraustu egingo den eta zaharberitze zientifikoa edo kontserbatzailea egitea eskatzen duen berariazko arkitektura-baliorik ez duen jatorrizko eraikuntza bat berriz eraikitzea.



2.– Berreraikitzeko esku-hartzeetan berreraikitako eraikuntzaren solido inguratzaile berria bat etorriko da, espazioari dagokionez, jatorrizkoarekin. Horrenbestez, lur eta espazio berean kokatu behar du, solairu guztietan azalera berdina izan behar du (bai sotoan, bai goikoetan), azalera eraikigarri berdina izan behar du eta solairuen kopuruak ere berdina izan behar du.

3.– Berreraikitzeko esku-hartzeetan ez da ezinbestekoa izango erabiliko diren materialek jatorrizko eraikuntzan erabilitakoen ezaugarri berdinak izatea, ezta barneko banaketa berdina eta fatxaden diseinua zehatza izatea ere. Alabaina, eutsi egin beharko zaie eraikuntzako tipoaren oinarrizko antolamenduari, fatxada-aurpegiaren osaketaren oinarrizko elementuei eta estalkiaren antolamendu eta formari.

Berriztatzea

Berriztatzea eraikuntzako esku-hartze bat da, sendotzeko esku-hartzearen kasuan adierazitakoez gain, honako helburuetakoren bat edo guztiak dituen:

a) Barruko espazioen banaketa eta antolamendua aldatzea, aldaketak instalazio teknologikoak eta higieñaren eta osasunaren ingurukoak barne hartzean egindako egokitzapenak baino harantzago doazenean.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

b) Ondorengo egitura-elementuen kokapena, kota, forma eta dimentsioak aldatzea:

Barruko hormak eta gangak.

Pilareak, forjatuak eta gangak.

Eskailerak.

Estalkia

c) Kanpoko eta barruko fatxadak aldatzea, balio estilistiko berezia duten elementuei eutsiz. Betiere osaerak duen batasunari eutsi beharko zaio.



5.2.4.3.-C motako eskuhartzeak

Jatorrizko eraikina zabaldu, eraitsi edo ordezkatzeko xede duten eskuhartzeak dira.

Zabalkuntza zera da: eraikuntzako esku-hartze bat, lehendik dagoen eraikuntzaren azalera eraikia handitzea helburu duena. Hori solairu berriak jasoz, eraikitako perimetroa handituz, forjatu berriak eraikiz edo beste nolabait egin daiteke.

Zabalkuntzako esku-hartzea berriztatzeko esku-hartzearekin batera egin ahal izango da eta, hala dagokionean, eraikuntzaren zati bat eraisketarekin batera.

Babestutako eraikinen ordezkapena edo eraisketa ez da baimenduko. Soilik interes publikoa helburu duten kasuetan baloratu ahal izango da.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

5.2.5.- Babeserako oinarrizko irizpideak:

Oinarrizko irizpideak erabiliz ondarearen balorazio kulturala egin da. Horretarako ondorengo baloreak aintzat hartu dira:

- Balio morfologikoa: Eraikinaren forma orokorren babestu beharrekoa denean aplikatu da. Morfologia definitzen duten elementuak babestuko dira.

(Baserrietako bolumen sinpleak esaterako).

- Balio tipologikoa: arkitektura mota edo eraikuntza konkretu batetako eredu interesgarria dela ikusi denean aplikatu da. Tipologia definitzen duten elementuak babestuko dira.

- Eraikitze moduaren balioa: eraikitze sistema berezia edo interesgarria babesteko aplikatu da(Egitura mota bereziak, etb- Tolareak adibidez-). Balioa duten egiturak babestuko dira.



- Balio teknologikoa: Ondareak teknikoki balioa duenean aplikatu da, (Errotak adibidez).

- Balio Integrala: Goian aipatutako balio guztiak orokorrean betetzen direla ikusten denean, ondareak, balio integrala duela esango da. Ondarea bere osotasunean babestuko da.

5.2.6.- Babeserako irizpide nagusiak:

Irizpide Nagusiak erabiliz ondarearen balorazio kulturala egin da. Horretarako ondorengo baloreak aintzat hartu dira:

- Balio historikoa: Lizartzako historian zehar garrantzitsua izan den ondarea babestu da.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

- Singulartasun balioa: Zenbait eraikinek izaera berezia duten aldetik babesteko beharra dutela ikusi da. Singulartasun hori bereziki babestuko da.
- Exenplartate balioa: arkitektonikoki, teknikoki, morfologikoki edo tipologikoki exenplu egokiak direnak babestu dira.



5.2.7.- Irizpide zuzentzaileak:

Ondare bakoitzaren balio eta izaera aztertu ondoren, zenbait irizpide zuzentzaile aipatu dira ondarearen balio eta izaera mantentzeko eta indarrean jartzeko beharrezkoak ikusi direnak.

5.3.- Sailkatu diren Ondasunen Babes Erregimena:

5.3.1.- Sailkatu diren elementuen eraisketa debekatuko da , bai eta balorezko elementuetan eragin kaltegarria izan ditzaketen eskuhartzeak ere. Balio gabeko elementu eta eranskinen eraisketa baimenduko da soilik. Eraikin hauetan burutuko diren eskuhartzeak babes maila eta onartutako eskuhartzearen araberakoa izango da.

5.3.2.- Udal baimena eskatu aurretik, sailkatutako elementuaren jabeak edo obraren sustatzauteak, argibide eskari bat egingo du udalean, honek burutu nahi duen eskuhartzea egokia den hala ez aztertzeko. Eskararekin batera, burutu nahi diren lanak azaltzeko aurreproiektu bat aurkeztuko da. Udala, proposatutako eskuhartzeari buruzko txostena burutuko du. Txosten honetan ezarritako baldintzetaz gain, Udal baimenean, bestelako baldintza osagarriak jarri ahal izango ditu.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- DOKUMENTU BATERATUA- K A T A L O G O A			
	2007KO OTSAILA			

Jabeak udal baimena zuzenean eskatu ahal izango du, aurretiko txostenik eskatu gabe. Bere kasuan Udalak, dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango ditu eta hala badagokio, baimen eskaria ezeztatu ahal izango du katalogoan ezartzen diren babes eta hobekuntza irizpideekin bat ez datorrelako.

5.5.3.- Kontsulta egin ostean, Udalaz gaindiko babesaren duten eraikin edo elementuetan eragina duten proiektuak, dagozkion erakunde eskumendunari igorriko zaizkio aztertu ditzan.

5.34.- Katalogoan jasotzen diren eraikin eta elementuetan burutuko diren obrek goian aipatutako mantentze irizpideak aintzat hartu beharko dituzte.

5.3.5.- 7/1990 Legearen babespean dauden elementuen aurria deklaratu ahal izateko, Lege honen 36. artikuluan ezarritako prozedura jarraitu beharko da.

5.3.6.- Monumento Murtzo izendapena duten Estazio megalitikoetan, 137/2003 dekretuan ezarritako babes- araudia beteko da.

5.3.7.- 1997 ko abenduak 19an Eusko Jaularitzako Kultura sailak egindako ebazpenean jasotako eraikinetan, 7/1990 ondarearen 49. artikuluan jasotako babes errejimena aplikatuko da eta 234/96 Dekretuan ezarritako Araudia.

Lizartzan 2007ko otsailaren 26an

Ainara Sagarna Aranburu, arkitektoa

Pilar Azurmendi Etxegarai arkitektoa